

BERTSO BERRIAK HERNANIKO PELOTARI JARRIAK

Bertso berriak jartzera noa
gertatuari jarraika:
bi mila eta mende laurdena
urtarrilaren hamaika.
Guri hernanin pasatakoa
gura nizueke aipa
pelota mundu osoak jakin
behar lukeena baita.

Udaberriko partida dago
ta Hernanira etorri
beroketetan egin genuen
peloteatu ta korri.
Txapa aldrebes samar botata
haintzat irten zen gorri
zer pasako zen señaile traza
hartu behar nion horri

Hormaren kontra hasitakoan
azkar ziguten igarri
atzelariak ibilli behar
izango zuela larri.
Juezarekin hitz egin zuten
hura utzi, hau ekarri
guk nahi genuen pelota kendu
eta karratua jarri.

Jende zintzoa edukiko du
seguru asko Hernanik,
baña batere etzan suertatu
orduan frontoian zanik.
Larritasuna izango zuten
gu saskiraño joanik
asko etzuten uste ordea
konturatuko giñanik.

Nahiz ta ez zuten tranpa egiña
haiek onartu iñola,
diferenteak ziren pelotak
ardia ta behia nola.
Alper-alper jarri genuen
irakitear odola
modu horretan hezia al da
Rekalde zarran eskola?

Harley-ak eta Vespak bezala
desberdina zuten hotsa.
Gezurra zuten hurbilekoa
zintzotasuna arrotza.
Partida galdu egin genuen
esateaz ez naiz lotsa,
ia pareko pena izan zen
gero dutexako ur hotza.

Frontoirik-frontoi herririk-herri
jardundako urteotan
horrelakorik etzait gertatu
orain artean pelotan.
Pasatakoak ipiñi ditut
egiazko bertso-sortan,
oso gustura hartuko ditut
inork erantzutekotan.

BERTSO BERRIAK PELOTARI OÑATIARREN ESANEI JARRIAK

Oñatiarrak Hernaniraino
behin etorri eta hara
nunbait pelota partido batek
sortu omen die traba
ta Tatiegik bertsoak jarri
lege zaharraren gisara
norbaitek irten beharko du ba
Hernaniren defentsara.

Pasatakoa ondo gordeta
haserrean kargazoiari
nahiz txapapean haina pelota
ezin sartu txapa-goian
bi mila aldiz esanda ere
modu ez hain lagunkoian
jakin ez dala bihurtzen Aitor,
aitzakia arrazoian.

Txantxiku hauek ondo dakite
zer degun diplomazia
baino_errespetuz aritu arren
hamaika akrobazia
hernaniarren tranposo fama
omen da irabazia
bai, gure kabuz egina baino
zuengandik ikasia.

Gure herrian pelotariak
izan dira dozenaka
ta arduradun izandu dute
frontoietako akrata
Rekalde tipo kurioa
frontoia_utzi du kostata
frontoia utzi, utzi du baina
sustraiak ondo botata

Materiala ez gustatu ta
egin zuten aldaketa
Ta pelotaren erritmo horrek
eman zizuen arreta
nik ez det uste gertatu zani
epaileen erosketa
dirudienez ur beroantzatz ere
ez daukate eta.

Positiboa ez denez beti
frontoietako epela...
azpijokotan zenbat partida,
trofeo eta txapela
egokia dan edo-ta ez dan
nork jartzen du erregela
pelota inoiz joku garbia
izan balitza bezela...

Hernani eta oñatiarrak
nola jarri diran martxan
nik bertso hauek idatzi ditut
umore oneko txantxan
holako gauzak gerta daitezke
fontoiean edo kantxan
ta errebantxa nahiko bazenu,
zain gaituzu Kontrakantxan